

EFADs-CACI Europa-Latinoamerika Koprodukzio Saria

Araudia

Iberoamerikako Zinematografiako Agintarien Konferentzia (CACI) ikus-entzunezko eta zinemako ekoizpenean espezializatutako nazioarteko agentzia bat da, Iberoamerika eskualdera zuzendutakoa. CACIren helburua honakoa da: Iberoamerikako herrialdeetako ikus-entzunezkoen esparruan zinematografiaren arloa garatzea, eta bidezko partaidetza baten bitartez, eskualdeko jarduera zinematografikoan integratzea.

Beste alde batetik, Europako Zinema Agentzietako Zuzendarien Elkarteak (EFADs) Europako 31 herrialdeetako (EB, Islandia, Norvegia eta Suitza) zinema-agentzietako zuzendariak biltzen ditu. EFADs elkarteak Europan ikus-entzunezko eta zinematografiako sorkuntzaren aldeko politika bat edukitzea eta Europako lanak Europan eta nazioartean modu eraginkorrean zabaltzea ziurtatzen laguntzen du.

2016ko martxoan Toulousen egin zen EFADs/CACI batzarreko bukaerako adierazpenean, besteak beste, elkarrekin kogarapenerako sari bat sortzea proposatu zen, hasierako fasean elkarlana bultzatzeko, benetako koprodukzio artistikoen kopurua handitzeko eta Europaren eta Latinoamerikaren artean elkarlan egituratu bat eraikitzeko asmoz. Sari hori zinema-jaialdi handi batzuetako foro profesionalen eremuan eman behar zela erabaki zen.

Donostia Zinemaldia Europako zinema-ekitaldi handienetako bat dela eta bere Industry Clubak, Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa antolatuz, dagoeneko gure bi kontinenteen arteko gune gisa jarduten duela kontuan hartuz, EFADs-CACI Europa-Latinoamerika Koprodukzio saria aurkezteko leku ezin hobea dela dirudi.

Ondorioz, EFADs-CACI Europa-Latinoamerika Koprodukzio Saria 64. Donostia Zinemaldiaren barruan, 2016ko irailaren 19, 20 eta 21ean, egingo den Europa-Latinoamerika 5. Koprodukzio Foroan emango da.

EFADs-CACI Europa-Latinoamerika Koprodukzio Saria nazioarteko epaimahai batek emango dio Europa-Latinoamerika 5. Koprodukzio Foroan aukeratutako proiektu bati.

EFADs-CACI Europa-Latinoamerika Koprodukzio saria arautuko duten baldintzak honako araudi honetan zehaztuta daude:

1. ARTIKULUA - Araudiaren helburua

EFADs-CACI Europa-Latinoamerika Koprodukzio sariaren bidez, zinema-industriaren arloan Europaren eta Latinoamerikaren arteko lankidetzaz bultzatzeko ekarpen bat egin nahi da. Ekarpina koprodukzio sari baten bidez gauzatu da eta sari hori honako baldintzen arabera emango da.

2. ARTIKULUA - Hautapen-irizpideak

EFADs-CACI Koprodukzio Saria Europa-Latinoamerika 5. Koprodukzio Foroan parte hartzeko aukeratutako proiektuetara zuzenduta dago¹.

EFADs-CACI Europa-Latinoamerika Koprodukzio Saria aukeratutako proiektuaren garapen-gastuak ordaintzen laguntzeko da.

Proiektuak koprodukzio bat izateko diseinatuta egon behar du, gutxienez Europako eta Latinoamerikako herrialde bana tartean sartuta.

Koprodukzio-bazkide «berrien» arteko koprodukzio bat izateko diseinatuta dauden proiektuetan arreta berezia jarriko da; hau da, normalean elkarlanean aritzen ez diren Europako eta Latinoamerikako herrialdeetako bazkideen arteko proiektuetan.

Proiektuak lotura berezi bat eduki behar du honekin:

- Latinoamerikarekin, Europako ekoizle batek aurkeztutako proiektua bada;
- Europarekin, Latinoamerikako ekoizle batek aurkeztutako proiektua bada.

Lotura horren oinarria edozein elementu esanguratsu izan daiteke: gidoiaren eduki kulturala, errodatzeko aurreikusitako kokalekuak, aktore-zerrenda edo talde teknikoa, etab.

3. ARTIKULUA - Onuradunaren konpromisoa

Proiektuaren produkzioa burututakoan, sariaren onuradunak behin betiko kopiako kredituetan honako hau barne hartu behar du:

- EFADs-CACI Europa-Latinoamerika Koprodukzio sariaren aipamena;
- EFADs elkartearen logotipoa;
- CACIren logotipoa.

Logotipoak erakunde horien webgune ofizialetan eskuratu ahal izango dira.

¹ http://sanebastianfestival.com/2015/the_industry_club/koprodukzioa_foroa/1/3552/eu

4. ARTIKULUA - Hautapen-prozedura

EFADs-CACI Europa-Latinoamerika Koprodukzio saria emango duen *ad hoc* epaimahaia honakoek osatuko dute: CACIko ordezkari batek, EFADs elkarteko ordezkari batek eta Donostia Zinemaldiak izendatutako ordezkari batek.

Epaimahaiaren erabakia behin betikoa izango da.

EFADs-CACI Europa-Latinoamerika Koprodukzio saria norentzat izango den 2016ko irailaren 21ean iragarriko da, Europa-Latinoamerika 5. Koprodukzio Foroaren barruan antolatutako ekitaldi batean.

5. ARTIKULUA - Saria eta ordaintzeko irizpideak

EFADs-CACI Europa-Latinoamerika Koprodukzio saria 20.000 eurokoa da. Baliteke benetan jasoko den zenbatekoa ezberdina izatea, banku-kosturik izanez gero horiek deskontatu egingo baitira.

Saria diru-laguntza ez itzulgarri bat izango da. Bi epetan ordainduko da:

- % 50 aurretik;
- % 50 koprodukzio-kontratu bat aurkeztu ondoren, eta betiere, lehenengo ordainketa egiten denetik gutxienez hiru hilabetera.

EFADs-CACI Europa-Latinoamerika Koprodukzio saria, 20.000 euroko zenbateko gordinekoa, proiektu irabazlearen ekoizle nagusiari –partaidetza handiena duenari– entregatuko zaio, banku-txeke, nazioarteko txeke edo banku-transferentzia baten bidez. Eurotan bakarrik ordainduko da.

6. ARTIKULUA - Estatu-laguntzei buruzko arauak

Europako estatu-laguntzei buruzko arauak betetzeko, Europako agintaritzetatik etorriko den sariaren zenbatekoa *de minimis* laguntzatat joko da². Onuradunak jasotako *de minimis* laguntzaren aitortpena egin beharko du.

7. ARTIKULUA - Gatazken ebazpena

Arau eta araudi hauen interpretazioarekin lotuta sortzen diren zalantza guztiak EFADs elkarrekin eta CACI batera ebatziko dituzte.

² 1407/2013 EE Erregelamendua (*de minimis* laguntzari buruzko erregelamendua), 2013ko abenduaren 24ko Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu bezala